



FOREVER TALDEA

## BALOREZKO PROPOSAMENA


Geuk hainbat arazo konpontzeko helburuekin sortu dugu enpresa hau. Horretarako ekintzaileen ezaugarriak kontuan izan ditugu: besteak beste, errealismoaren erabilera, aldaketa klimatikoaren prebentzioa eta ingurumena zaintzea. Horregatik aplikazio bat sortuko dugu. Esan beharrekoa da, errealismoa esaten dugun unean zera esan nahi dugula: gure aplikazioa gaur egun daukagun errealitatea nolakoa suertatu den erakusteko helburuarekin sortu nahi izan dugula, dauzkagun beste hainbat helburu kontuan hartuz. Baina ez dugu sortu soilik nolakoa den gaurko mundua erakusteko, baita ere jendea kontzientziatzeko mundua oso gaizki jartzen ari dela eskualde guztietan.

Aplikazio hau berrikuntza bat izango da inoiz ez delako horrelakorik sortu. FOREVER aplikazioa hurrengo egitean datza; lehenik eta behin txipa eta produktua bateratuko ditugu eta eroslee gure azken produktua erostean, sortuko dugun aplikazioa instalatu behar izango dute. Azken finean lehen esan bezala guk munduaren hobekuntza bat nahi dugu eta aplikazio horrek produktua non bukatzen duen jakinaraztea laguntzen digu, guk ondoren hainbat erabaki hartuz. Gainera, aplikazioaren helburu nagusia mundua betirako egotea izango da eta besteengatik alderatzen gaituen ezaugarria hau da: ez dela entretenimendurako erabiliko den aplikazioa baizik eta mundua eta gizakiaren bizitza hobetzeko balio duen aplikazioa da. Horregatik egongo dira bezeroak gure aplikazioa erabiltzeko prest. Aipatu dugun bezala, guk salduko ditugun produktuei txip bat txertatuko diegu eta gure azken produktua, hau da, produktua txipa barruan duela, guk sortuko dugun web gunena egongo dira salgai. Kontuan hartu behar den gauza bat zera da, guk saltzen dugun produktua zein txipak ez ditugu guk ekoitziko baizik eta beste hainbat enpresei erosiko dizkiegu produktuak zein txipak eta guk egingo dugu txiparen txertapena.

## FOREVER TALDEA

Bestalde, esan beharra dago aplikazioa erabiltzen duten pertsonak jakingo dutela une oro non dagoen beraiek aurretik erositako produktua (hasieran geuk beste enpresa batzuekin tratua egingo dugu eta horrela “txip” bat erantsiko diogu produktu jakin batzuei). Aplikazio honen bidez, produktu hauen lokalizazio zehatza jakingo ahal izango dute gure bezeroek.

Bezeroak gure aplikazioa aukeratzearen arrazoia oso sinplea da: mundua zaindu nahi dute, gaur egungo egoera ikusita, ondorio larriak ikusten dituztelako etorkizunari begira. Gaur egun itsasoa plastikoz beterik dago eta dakigunez, horrek mundua kaltetzen du.



Atzera begiratzuz, ohartu gara zein kalte larri ekarri dituen arazo horrek, beraz, gure aplikazioaren jatorria horretan datza. Lortu nahi dugun emaitzetako bat jendea kontzientziatzea da, kontsumitzen duten plastikoak nun amaitzen duten jakinda. Gure balioa kualitatiboa da, funden edo zorroen diseinua geuk egingo ditugulako. Hala are, horrelako aplikaziorik ez dugu inoiz ikusi eta horrek berritzailetzat hartzen du.

Azken finean, aplikazioan, erositako produktuak eta fundak gure helburuekin lotura zuzen bat du, hau izango litzatekeena; erositako produktuak txipa daramanez aplikazioaren bitartez non dagoen jakin ahal dugu, bai guk, bai kontsumitzaileek... Horrela, plastikozko produktuak non bukatzen duten jakin izango dugu eta gainera guk hori saihesteko hainbat erabaki hartu ahal izango ditugu.

Azkenik, guk ekoiztutako funda aplikazioan salduko ditugu, hori izanik erositako produktuaren eta plastiko birziklatutako funden lotura aplikazioarekin. Guk sortutako produktu bukatu horiek, web gunean egongo dira salgai.